

AZKEN LANHÜTARRA

Nerea Loiola



ere in **AUSKA** 

NEREA LOIOLA

AZKEN LANHÜTARRA

Marrazkiak: Cristina Fernández

erein **AUSKAZO** 

idazlea
nerealoiola



Nerea Loiola Pikaza (Deba, 1985). Matematikako irakaslea naiz lanbidez, eta hiru ume ederren ama ere bai. Idaztea plazera da niretzat. Haur eta gazte literaturan murgilduta nabil eta bi liburu argitaratu ditut azken bi urteetan: *Harri Bat Poltsikoan* (Erein, 2018) eta *Azken lanhütarra* (Erein, 2019).

cristinafernández

marrazkilaria



Cristina Fernández. Beharbada etxeokoe Zuzenbidea ikas-
tea nahiago zuten, baina ni trementinaren usaina eta zirri-
borroak egitea gustuko izanda Arte Ederretako Fakultatean
sartu nintzen. Diseinu Grafikoko espezialitatea egin nuen,
eta urte batzuetan marketing eta publizitatean jardun
nuen.

Gustura nengoen nire lanarekin, baina askoz hobeto
egon nintekeela pentsatu nuen, nola eta nire bi zaletasun
handienak elkartuz: irudiak sortzea eta irakurtzea. Ho-
rrela hasi nintzen argitalpen desberdinentzako kolabora-
zioak egiten, ilustrazioak eta liburuen azalak, eta aldi be-
rean Unibertsitatera itzuli nintzen Artearen Historia
ikasketak burutzera.

www.crisfernandez.com

*Orhiri irribarreengatik,
Xuharri begiradengatik,
Andoniri besarkadengatik.
Eta Imanoli, guztiari eusten
dioten eskuen pozarengatik.*

Maulen hasi zen dena. Aste Santuko oporretako ostegun eguzkitsu batean. Aspaldi esan genien gurasoei lagun denok elkarrekin asteburu-pasa joan nahi genuela, eta eskaera horri erantzunez elkartu ginen Mattin, Jokine, Klara eta laurok. Eta gure familiak noski.

Arratsalde hartan gurasoek txangoa proposatu ziguten Mauleko gaztelura. Primeran genbiltzan plaza inguruan ezkutaketan jolasten eta planak ez ninduen gehiegi motibatzen. Ez nuen gaztelura aldapan gora oinez igotzeko gogorik.

Mesedez! A ze mania izaten duten helduek beti “zerbait” egitekoa, ezta? Ezkutaketan jolastea ez al da, ba, “zerbait” egitea?

Gu animatu nahian, Mattinen aita gazteluaren historia kontatzen hasi zitzaigun: duela ia 800 urte eraiki zutela, guda ugari izan zirela bertan, erre egin zutela

behin, sorginduta zegoela, kartzela ere izan omen zela, eta bla-bla-bla. Tira, bai, egia esan behar badizut, horrek guztiak piztu zidan interes pixka bat, sorginkeriarrenak, batez ere. Baina Mattinen aita aditua zen guri ziria sartzen eta ez zegoen fidatzerik.

Imajinatuko duzun bezala, gaztelurako bidea burumakur eta bidean aurkitzen nituen hartxintzar guztiei ostikoak emanez egin nuen. Dioska.

Aho bete hortz gelditu nintzen ordea gaztelua aurrez aurre izan nuenean. Ez zen gaztelu bat gertutik ikusten nuen lehen aldia, baina honek bazuen besteek ez zuten zer bait.

Giro misteriotsua nabaritzen zen bertan.

Sorginkeria agian.

Sorginkeria kontuak aipatzen ditudan bakoitzean ume moko bat naizela pentsatuko duzu, ezta? Niri bost koldartzat banauzu eta, gainera, irakurtzen jarraitzen baduzu ikusiko duzu ez nenbilela hain oker.

Kontua da minutu gutxian nire umorea guztiz aldatu zela eta barrura sartzeko irrikan nengoela.

—Amets! Lagundu atea bultzatzen, bakarririk ezindut! —oihukatu zidan Klarak.

Korrika pasatu nuen bion artean zegoen harrizko zubia, eta a ze atsekabea gurea, hainbat bultzadaren ondoren atea itxita zegoela ulertu genuenean.

–Itxita dago ama! –deiadar egin zion Klarak, haserre antzean, atzetik zetorren guraso taldeari.

Orduan, Mattinen arreba zaharretako bat saiatu zen atea irekitzen. Ezin zuela ikusita Klararen anaia zaharragoa tematu zen ahaleginean. Zer uste zuten, ba? Gaizo-peleleak ginela? Hori gutxi ez-eta, Jokine eta Mattinen amak ere bultzaka hasi ziren. Eta azkenean arrazoi eman ziguten:

–Itxita dago.

Tira, faborez! Nireak eta bi esateko gogoa izan nuen une hartan. Gure ahalegina eta indarra gutxiesteak izugarritzko amorrua sortzen zidan. Ulertzen didazu, ezta? Ziur sentitu izan zarela horrela noiz edo noiz. Helduak, beti berdin.

Mesedez! Guraso bakarrari ere ez al zitzaion bururatu telefonoan gazteluko ordutegia begiratzea? Ez da izango sakelakoari begira egoten ez direlako!

Azkenean, arratsaldea gaztelu inguruan igaroko genuela erabaki zuten. Helduek. Gauzak lasai zeude-nean, familia-asanbladak egiten genituen denon artean erabakiak hartzeko, baina, horrelakoetan, umeak erabakitzeko eskubiderik gabe gelditzen ginen. Bai, badakit, zuri ere gertatu zaizkizu horrelakoak, ezta?

Ez kutaketan jolasten hasi ginen berriro. Zozketa egin eta Mattini tokatu zitzaion besteen bila joatea. Eta, hain justu, korrika egiten hasi behar genuen unean, amak esan zidan:

–Amets, eraman ezazu zure anaia txikia ere zuekin. Gustura ibiliko da.

Zotz! Nire anaia txikiak Xabi du izena eta hiru urte ditu. Duen tamainarengatik oso erraz ezkutatu daiteke, baina ezetz asmatu ze arazo duen? Horixe, ez da kiela geldirik egoten. Horregatik gurekin etortzen utzi aurretik aginduarazi nion jolaseko arauak zehatz-mehatz errespetatuko zituela.

Ezkutatzeke uea zen. Mattin hasia zen zenbatzen eta ez genuen denbora askorik izan bertatik alde egi-teko. Zubi azpira sartu orduko entzun genuen:

–Bale, bale! Banoa!

Xabiri isilik egoteko keinua egin nion eskuarekin, eta Mattin non zebilen ikusteko zubipetik atera nintzen une batez. Unetxo batez. Nahikoa, anaiaren arrastoa galtzeko: zubipetik desagertu zen.

Zur eta lur gelditu nintzen.

Gazteluko horma estaltzen zuten belar luzeen atzean, egurrezko ate txiki bat zegoen. Pertsona heldu bat lau-hankan sartzeko modukoa. Xabi tente sartzeko modukoa. Eta irekita zegoen.

Burua atetik barrena sartu, eta iluntasuna besterik ez nuen ikusi.

–Xabi! Xabi, hor al zaude? –oihukatu nuen, baina ez nuen erantzunik jaso.

Iluntasunak beldurra ematen zidan. Anaiarik gabe gurasoengana bueltatzeak izu-laborria sortzen zidan. Eta nire anaia txikiari zerbait gertatzeak, odola gatzatzen. Beraz, arnasa sakon hartu, makurtu, eta barrura sartu nintzen katamarka.

Ilun zegoen dena. Beltz. Hotz. Heze.

Barruan ote zegoen nire anaia txikia? Akabatuko nuen aurkitzen nuenean. Baldin eta bizirik aurkitzen banuen. Ai ama, ni ere bizirik aterako ote nintzen handik? Edozein unetan hildako norbaiten eskeletoarekin estropezu egingo nuela iruditzen zitzaidan. Pelikuletan gertatzen den bezala.

Ez dakit zein indarrek eraman ninduten pausoak bakan baldar aurrera ematera. Astiro. Argitasun pixka bat ikusi nuen arte.

–Hor al zaude, Xabi? –galdetu nuen zalantzati.

–Ayeye! –erantzun zidan hark, herriko plazan aurkitu izan banindu bezala.

Orain nire izena ondo esaten badakien arren, hasieran “Ayeye” esaten zidan eta horrela deitzen nau oraindik ere.

–Hemen ez gaituzte aurkituko! –gaineratu zuen poz-pezik.

–Baboa al zara? Kristoren sustoa eman didazu. Ezin gara hemen ezkutatu. Arriskutsua da –esan nion bera zegoen gelatxora iritsi nintzenean.

Ziega txiki bat zen. Gaztelua kartzela izan zen garaian presoentzako erabiliko zuten seguruenik. Zirrikitu txiki bat zeukan horma batean eta hortik sartzen zen gelako argi apurra.

Hotzikara batek hartu ninduen. Latza behar du horrelako leku batean egoteak.

Xabi pasadizoaren zulorantz zuzendu eta nire aurretik joateko keinua egin nion. Buelta askoz ere azkarragoa egin zitzaidan.